

*GuZum* banaketa enpresa bat da, bertan, Zumaiako dendetako produktuen banaketa zerbitzuaz arduratzen da, online denda baten bidez kudeatuta. Datuen arabera, interneteko salmenten kopuruak joera gorakor nabarmena izan du azken urteotan eta Zumaiako komertzioak berriz, ez du lekurik merkatu horretan. Horretaz gain, pandemiaren egoera dela eta online erosketak sektore batzuetan ezinbesteko bihurtu eta ikaragarri igo dira, %50a, alegia, eta beraz, Zumaiako herriari, herritarrei eta dendariei beharrezko ekarpen bat egiteko pentsatuta dago gure proiektua. Erreferentzia gune bat izango da gurea online erosi bitartean herrikideei ekarpena egin nahi dienezat; beti ere bezeroekiko gertutasuna bermatuko duen tokia.